

EUSKAL-IZATEA



Jáunak: Amabost urte dira, Oyarzunen, gure lurrak duen espillu garbi ontan, elkar ikusten genuela, bertako seme Aita Mendibururen eunkiurrena goitalchatzeko bildurik. Orduan emen giñanetatik geyenak ill dira, baña illak ill, arboletik ostuak erortzen diran bezela, eta denbora, kea banatzen dan gisa iragorik, ikusten degu Euskal-familiya berriro biltzen dala gaur emen, ikusten degu euskara bizi dala, Jainkoak ala nairik. ¿Nola bada ez da gure fedea irazekiko euskaltasunian? Federik gabeko euskaldun bat balitz, litzake muñik gabeko landare baten erara, azal utsa, deus ez; eta fede au sendotu eta indartzeko premiyan bagaude, nitaz esangonuke aski detala begiyak biurtutzea gaur nere ama Euskararengana. Nik ikusten det... ¡zenbat eta šarrago, orduan ta maitagarriago! bere seme batzuetaz aztua munduko zoramenen bitartez, ez iñola ere maite ez dutelako; nik ikusten det nola dagon far-irria dariyola, pozez beterik, soiñ berri, eder, balioso batekiñ jantziya, nere biotzeko erritar, adiskide eta jaun Aita Vinuesa gurgarriak euskaraz egin digun sermoi paregabiarekiñ apaindua. Agindu ziran Mondragoin, joan dan urtean, ala egingo zuela eta kunplitu du bere itza, baña... ¡nola!... ¡nola! Iduritzen zait Aita Mendiburu, Larramendi eta Kardaberazek zeruetan festa bat izan dutela gaur, lurrean degunari amoriyoz eranzunik. Eta oraiñ, nere aurrean balego, erregu bat egingo niyoķe Aita Vinuesa jaunari: ez dakit gure mendi-kolkoetako seasketan arkitzen diran áurren etorkizunaren berri, baña badakit Jesusen Lagundi edo Konpañiya Gipuzkoan jayo zala beren animak Zeruratzeko, lu-

rreko aranz eta laño guztiyen gañetik: bada, ontarako, eutsi dizayola Konpañiyak euskarari, beste edozein izkuntzi baño geyago.

Begira zayogun ere, Gipuzkoako Diputazio chit goituak, bere seme nekazari onraduen onerako antolatu duen billaldi ederrari. ¿Nola ez esan itz bi gai onen gañean? Nekazari jayo nitzan, jáunak, ez det lotsarik aitortzeko, eta gaur kalean bizi banaiz ere, kanpo librian jayotako chori gašua kayolan bizi dan bezela, nere gogua, biotza, asmuak eta naya, dijuaz kaletik mendira, zelayera, baserrira, eta....¿ikusten ditut abek len-len ziran modura? Oraindik bai, baña kontu: ondo da, chit ondo, ganadu bikañez ukulluak ornitzia; ondo, lureko eginkizunetan aurreratzia; baita ere, al bada, diru piška bat zintzo bildu eta Diputazioak berak ontarako idikirik daukan kuchan irabaziyan jartzia: eziñ zuzenago ta obeto dira gauz abek guztiyak, baña kontu, diyot berriz ere, etzaitez ichutu geyegi lureko gauzetara, nekazariya, baldiñ zoriona nai badezu zure echean; maíta ditzatzu, beren azken egunetan, lanerako gauza ez dirala gelditzen diran zure aiton-amonak, echeko gobernu eta konsejuetan eskubiderik kendu gabe, baizik beren esanak entzunik, eta beren eskuan, errespetoz eta maítasunez, illobachoi muñ ematen erakutsiyaz; bestela, utsa baliyoko dute aurreramendu guztiyak, izango dituzu zure aurrekoak baño ganadu obiak, nai aña diru irabaziyan, baña zorionari ichiko dizkatzu ateak zure familiarentzat eta zurretzat, zergatik gizonák, mundu osoaren jaun ta jabe egingo balitz ere, eziñ autsiko duen sekulan Jaungoikoaren legea, zeinák esaten digun: onra zazu gurasua.

Gañera, beste gauza bat esan bear det: Diputazio chit goituak, zentzu onarekin, eskeintzen ditu sariyak, jatorkiyena jantzirik agertzen diran gizon eta emakume nekazari gaztiaí, eta onek ¿zer eman naidu aditzera? Nere iritziyan, emakumiak lagundu biar diyola gizonari lur-lanetan, beti, baña len gaur baño obeto ikusten zan bezela gure Euskal-errian: alferrik izango da baserriko seméak nekazaritzari jarraitu nai izatea, baldiñ bertako alábak, kalerako, dendarako, jostuntzarako eta apainketako griña badakarte; au orla izatera, lenchiago edo gerošia-go baserriak erori eta lurra joko du, ez Diputazio eta ez inork alchako ez duen moduan. Utzi apainkeriyak eta zelayera, neskáchak, ¿zer zoriona zuentzat! zuen seméak izango dira indartsu eta libreak; pobre izan arren, aberats; zergatik nekazariya dan inor baño geyago bere buaruaren jabe, ez da bizi besteren mende, eta au dá euskal-izatearen antziñeko sustraya.

Bukatu baño len, diosal egin bear diyet neška eta mutill gaztechuai. Laister ikusiko ditugu euskaraz irakurri eta izkribitzen, eta erriko plazan gure dantzak ateratzen: baño ez dira abek aurkeri edo jostaketak, baizik Euskal-erriaren geroko izate edo ez izatea ber berá, zergatik erri baten esperantza gazteriya da, eta gazteriy'au euskalduna ezpadator, euskara eta euskal-oiturak aztutzen baditugu, ¿nola izan liteke gero Euskal-erririk? Izango da beste erri bat, baño gurea eziñ, eta au litzake gure Jaungoikoaz, gure guraso eta gure buruaz, ernegatzea bezela.

Barkatu, jáunak, aspertu bazaituztet. Gaur emezortzi urte izango dira berriz Oyarzunen euskal-festak. ¡Nork daki gu non izango gerran!... Iltzea utsa da, amoriyoz, fedez eta esperantzaz lurra uzten danean; eta, dudarik gabe, etorriko dira gure ondoren beste batzuek, indar eta argi aundiyaguakiñ, gure lur laztanaren onerako.

¡Bizi bedi Euskal-erria! ¹

ANTONIO ARZÁC.



(1) Diputazio chit goituak Uztaren 4-ean Oyarzungo Konseju-echean emantako bazkari-nagusian, irakurri zuen jolas-aldi au beraren egilleak.